

Urkomeko zuzendaritza batzordea berritu da, hauteskunderen ondoren udal ordezkariak aldatu dira; horrela da egungo eratu berri den zuzendaritza batzordea:

LEHENDAKARIA: Ana Maria Eizagirre - HITZEEZ elkarte  
LEHENDAKARI ORDEA: Imanol Arrizabalaga - AZKOITIKO udala  
IDAZKARIA: Leire Goenaga - AZPEITIKO udala  
DIRUZAINA: Miriam Sarasola - AIAKO udala  
BOKALA: Anuska Esnal - ORIOKO udala  
BOKALA: Mikel Arregi - ZESTOAKO udala  
BOKALA: Jose Miguel Aizpurua - EHNE Sindikatua  
BOKALA: Iñako Odira - ENBA Sindikatua  
BOKALA: Juan Mari Irastorza - NEKATUR elkarte  
BOKALA: MARIA Jesus Salsamendi - LURGINTZA kooperatiba  
BOKALA: Jon Arruti - URKAIKO kooperatiba

## LANDAN EKIN:



Landaola Federazioak Gipuzkoako Landa Eremuan ekintzailetasuna eta ko-sorkuntza sustatzeko egitasmoa da.

HELBURUAK:

- Gipuzkoako landa eremuko ekintzailetasuna eta sorkuntza sustatzea.
- Gipuzkoako 1. sektore eta elikadura balio kateko ekintzaileen proiektuak ezagutaraztea.
- Gipuzkoako landa eremuan egiten diren ekimen edo jarduera berritzaileak ezagutaraztea.
- Landa eremuan dauden enpresekiko ezagutza/bisibilitatea areagotzea.
- Landa eremuetako gizartearekiko begirune eta aldeko jarrera areagotzea.
- Gipuzkoako 1.sektore eta elikadura balio kateko enpresen arteko sinergiak eta elkar ezagutza.

SARIAK:

LANDA-EKINTZAILE SARIAK: 2.500€ sari bakoitzeko.

- 1.Nekazaritza Jardueraren Garapena.
- 2.1.go sektoreko dibertsifikazioa.
- 3.Emakume ekintzaileari saria.
- 4.Belaunaldi aldaketa saria.
- 5.Berrikuntza saria.

CAIXA BANK: TIERRA DE OPORTUNIDADES:

Aurkeztutako proiektu guztien artean 4 RURAL TALENT ekintzaile sari 1.000€ bakoitza eta 35 orduko formakuntza.

SARIDUNAK:

Guztira 28 proiektu aurkeztu dira Gipuzkoa osokoak. Hauen artean 10 izan dira saria jaso dutenak.

Urola Kostako 7 proiektu suertatu dira saridun:

- IBARBI EDO ERREZIL SAGARRA: Ibarbi Errezil Sagarra kooperatiba.
- IRAGANA ERREPARATUZ, ETORKIZUN BERRIAK: Maite Mancisidor.
- GAZTAGINTZA DIBERTSIFIKAZIOA, BEHIAR PROIEKTUA: Sakona Etxaldea E.Z
- BELAUNALDI ALDAKETA: Gañeta txakoliña.
- EKINTZAILETZA ETA ASTOKA PROIEKTUA: Rakel Irigoien.
- GAZTAINXULO: Ane Aranburu.
- ARTAMUGARRI: Amaia Alberdi.

Informazio gehiago: [www.landaola.eus](http://www.landaola.eus)



## LEADER LAGUNTZAK:



Mendinet, Euskadiko Tokiko Ekintza Taldea, Euskadin LEADER programaren kudeatzailea da. LEADER programaren helburu orokorra landa-eremuaren garapen ekonomikoa bultzatzea da.

Leader programaren ezaugarri nagusia metodologia propioa erabiltzen duela tokiko eragileek estrategiak diseinatu eta abian jarri, erabakiak hartu eta beren landa-eremuak garatzeko baliabideak esleitu ditzaten. "Bottom-up" ikuspegia deritzona jarraitzen dute, non estrategiak behetik gora ere diseinaten diren: lurraldean bizi diren eta bertan lan egiten duten pertsonetatik erakundeetara.

Aurten eskaerak aurkezteko epea urriak 31tik azaroak 14ra izan da eta eskualdetik 12 proiektu aurkeztu dira.

## EREIN LAGUNTZAK:

Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak. Aplikazio-eremu geografikoaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremu guztiak sartuko dira entitate-mailaren arabera sailkatuta eta honako hauek bereziko dira:

- Arreta Bereziko Eremuak (ABE); zaurgarritasun-maila handiena dute: Z1
- Gainerako landa-eremuak: Z2, Z3 eta Z4 zaurgarritasun-mailei dagozkie.

Aurten eskaerak aurkezteko epea irailak 28tik urriak 27ra izan da eta eskualdean 5 proiektu aurkeztu dira.



[Urkome Urola Kostako Lge](#)



[urkome](#)



[urkome@urkome.eus](mailto:urkome@urkome.eus)



[@urolakosta](#)



[@urkome\\_lge](#)



943816500

Plaza Nagusia, 11-1.solairua, 5.bulegoa  
20730, Azpeitia